

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Proiektu hau aurrera eramateko bertute eta gaitasun desberdinak ditugun bost sortzaile eta bazkide elkartu gara. Horregatik, gure enpresaren aurrerapen progresiboa errazten duen harreman dinamikoa sortzea lortu dugu. Hala eta guztiz ere, hau da, gutako bakoitzak hobeto funtzionatzen duen eta gure errendimendua handiagoa den eremu bat badu ere, gure prestakuntzan hobetu egingo den oinarri bat dugu, beste edozein arlotan jarduteko aukera emango diguna baina gure funtzio nagusiarekin zerikusirik ez duena. Era berean, gure funtsezko baliabideak banatu ditugu gutako bakoitzak gure enpresari egiten dion ekarpenaren arabera:

- **June Zuazo:** komunikatzeko erraztasuna eta pazientzia ezaugarri dituen pertsona da. Publikoaren aurrean hitz egitea ez da beretzat eragozpen bat. Gainera, konbentzitzeko ahalmena du. Hori dela eta, gure produktuak merkaturatzeaz arduratuko den pertsonaizango da.
- **Asier Landea:** irudikatu, sortu eta bere irudimenean imajinatu duena errealitate bihurtzeko gai den pertsona da. Horregatik, gure produktuak diseinatzeaz gain kolorea zehazteaz arduratuko den pertsona da.
- **Gorka Corrales:** hasieratik teknologia eta informatika zalea den pertsona da. Arlo horretan murgilduta egon da beti, beraz, eremu honi dagokionez bere gaitasunak eta ezagutzak nahikoak eta onak direla esan liteke. Hori dela eta, gure bezeroek web bidez bidaltzen dituzten mezu guztiak erantzuteaz gain, web orria sortzeaz eta kudeatzeaz arduratuko da.
- **Imanol Astorga:** pertsona zehatza da, produktua sortzeko prozesua urratsez urratz betetzen duena eta hori gutxi balitz bezala, gure eskaera bakoitza banan-banan egiteko gaitasun osoa du, gure produktuetako bat ere akats-mota batekin iristen ez dela ziurtatuz. Horregatik, bera da ekoizpenaz arduratzen dena.
- **Maialen Fernández:** negoziatzeko gaitasuna izateaz gain erabakiak hartzeko orduan zuhurra da. June Zuazok bezala, jende aurrean hitz egitearena ez zaio iruditzen arazo bat, eta horregatik eskaintzen dio enpresari gure hornitzaile eta banatzaileekin harremanak ezartzeko gaitasuna.